

## Hiru euskaldun Sorbonan

*Deia*, 1983-06-29.

Egun horietan eta hemen, DEIAN bertan, irakurri ditugu Mauro Elizalde Jaunak argitaratu dituen idazlan argi eta bihotzdunak. Hirurak gai bera; hiru euskaldunek Sorbonako Unibertsitatean merezi izan duten ohore handia: San Sebastian (*Latxaga*) jaunaren doktorego tesiaren irakurketa, Oñatibia jaunari eman dioten hilondoko doktoregoa, eta Elvira Zipitriaren gorespenerako Unibertsitate famatuan entzun diren hitz ederrak.

Denak pozgarriak.

Nik ez dut Latxaga jauna tratuz ezagutzen; bai, ordea, Elvira Zipitria, gehien bat idatziz izan banuen ere, eta, nola ez, Yon Oñatibiarekin gazte ginenetik izan genuen lagun arteko tratu estua, Ameriketan eta hemen.

Egia esan, ez nekien "nor-nori-nork" irakasbidea Elvirari zor zitzaionik; bazuen, hau aipa gabe ere, aspergabeko lan handien merezimendurik, eta gaur hainbeste erabiltzen den metodoa ere berea zela jakiteak poztu nau. Gure hizkuntzaren Gurutz bidea egin dutenak asko izan dira, eta penitente horien artean seinalagarrienetako bat da Elvira Zipitria, noski.

Gogorrak, latzak izan dira joandako urte horiek guztiak euskararen zerbitzuan egon nahi izan dutenentzako, zahar nahiz gazte; baina adinekoentzat batez ere, horiek aldakuntzetara moldatzea nekagarri eta tristea izan bait da, laidoz betea. Hala ere, ez dira beti gazteagoren ozarkeriaz sortuak izan; giro gaiztoak berak bultza gaitu bakoitza isilpean eta berean aritzera, eta honek, barrutiak sortzen ditu, askotan hertsia, eta baita hertsikorrak ere; bakartate penagarrian nozitutakoak asko dira.

Aspaldidanik dabil gure herria zauriz zauri.

Triste da hau esatea, baina tristeagoa oraindik hau dena egia dela aitortu beharra. Begira, bestela, Mauro Elizaldekin kontatzen digun pasadizoaren korapiloa: Latxagak Elvirarekin izan nahi zuen *elkarrizketa ezin zuen lortu*, Antonio Labayen-en itzalean Tolosako geltokian egin ahal izan zuen arte. Neronek badut, exenplo gisa, beste bat, Yon Oñatibia berak kontatu zidana: Elviraren etxera joan zen argitara berria zuen *Euskara Irrati Bidez* haren lehen alea eskeintzera, eta eskuratu zionean, Elvirak liburuari begirada bat ere bota gabe, berea zuen lan baten bila joan eta eskuratu zion esanaz: "eta hara hemen nirea".

Hemen amaitu zen elkarrizketa.

Ez zuen, ba, Yonek Elvirarenganako gordespenik; aitzitik, errespetoa eta mirespena baizik.

Baina halaxe gara, zer nahi duzu!